



II. ATALA

BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA

Bizkaiko Garraio Partzuergoa

«Bizkaiko Garraio Partzuergoaren tituluen erabiltzaileei bidaiari-garraio publikoko zerbitzua emateko tasak arautzen dituen zerga-Ordenantza» ren aldaketaren behin betiko onespeneren iragarkia.

«Bizkaiko Garraio Partzuergoaren tituluen erabiltzaileei Bidaiari-garraio publikoko zerbitzua emateagatiko Tasak arautzen dituen zerga-ordenantza»-ren aldaketaren hasierako onspena, 2021eko abenduaren 3ko 233 zenbakidun Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu ondoren, espedientea jendaurrean egon da, hogeita hamar (30) eguneko epean, eta ez da erreklamaziorik, zioen agerpenik edo iradokizunik aurkeztu. Jendaurre epearen barruan, 2022ko urtarrilaren 18an, MSPE Madres Solteras Por Elección Elkar-teak alegazio-idatzia aurkeztu du guraso bakarreko familiei zuzendutako hobaridun tarifa murriztua eskatzeko.

Bizkaiko Garraio Partzuergoko Kontseilu Nagusiak 2022ko otsailaren 1eko batzarraren aipatu den alegazio hori ezeztatu eta «Bizkaiko Garraio Partzuergoaren tituluen erabiltzaileei Bidaiari-garraio publikoko zerbitzua emateagatiko Tasak arautzen dituen zerga-ordenantza»-ren aldaketa behin betiko onartzea erabaki du.

Ondorioz, Ordenantzaren testu osoa argitaratzen da, behin betikoz onartutako aldaketak sartuta, hauxe da:

Bilbon, 2022ko otsailaren 1ean.—Zuzendari Nagusia, Gorka Ugalde Martínez

**BIZKAIKO GARRAIO PARTZUERGOAREN TITULUEN ERABILTZAILEEI
BIDAIARI-GARRAIO PUBLIKOKO ZERBITZUA EMATEAGATIKO TASAK
ARAUTZEN DITUEN ZERGA-ORDENANTZA****I. ZERGA-EGITATEA****1. artikulua**

Bizkaiko Garraio Partzuergoak jaulkitzen dituen garraio tituluekin bidaiatzen duten erabiltzaileei bidaiari-garraio publikoko zerbitzua ematea da zerga-egitatea.

II. SUBJEKTU PASIBOAK**2. artikulua**

Tasaren subjektu pasiboak dira Zergei buruzko Foru Arau Orokorraren 34. artikuluan aipatzen diren entitateak eta pertsona fisiko zein juridikoak, ordenantza honek arautzen duen zerbitzua eskatzen badute, edo zerbitzu horren onura edo eragina jasotzen badute.

III. ZERGA-OINARRIA**3. artikulua**

Zerga-oinarria zerbitzuaren kostua izango da, benetako kostua nahiz aurreikusitakoa. Kontuan hartuko dira zerbitzu edo jardueraren kostu osoak barruan hartzen dituen zuzeneko eta zeharkako gastuak, baita finantzarioak direnak ere, eta, kasua bada, beharrezkoak direnak tasaren ordainetan ematen edo egiten den zerbitzuaren edo jardueraren zentzuzko jardunari eutsiko zaiola bermatzeko.

IV. ZERGA-KUOTA**4. artikulua**

Ordenantza honetan araututako zerbitzuak emateko edo jarduerak egiteko zerga-kuotak honela finkatu dira:

BGPren tituluen erabiltzaileei garraio zerbitzu publikoak emateko zerga-kuotak:

1. Aldi Baterako Tituluak**1.1. Garraio Mota Bakarreko Aldi Baterako Tituluak****1.1.a. Garraio mota bakarreko Gazte titulu arruntak**

Gune kopurua / Número de zonas	Gune 1 1 Zona (€)
GAZTE ARRUNTA / GAZTE ORDINARIO	33,00

1.1.b. Garraio mota bakarreko Gazte tituluak, kategoria orokorreko familia ugarientzat (FU 20)

Gune kopurua / Número de zonas	Gune 1 1 Zona (€)
GAZTE FU20 / GAZTE FN20	26,40

1.1.c. Garraio mota bakarreko Gazte tituluak, kategoria bereziko familia ugarientzat (FU 50)

Gune kopurua / Número de zonas	Gune 1 1 Zona (€)
GAZTE FU50 / GAZTE FN 50	16,50

**1.2. Aldi baterako mota anitzeko eta bidai mugatuko tituluak****1.2.a. Aldi baterako, mota anitzeko eta bidai mugatuko titulu arruntak**

Gune kopurua / Número de zonas	Gune 1 1 Zona (€)	2 Gune 2 Zonas (€)	3 Gune 3 Zonas (€)	4 Gune 4 Zonas (€)	5 Gune 5 Zonas (€)
BIDAI 50 ARRUNTA / BIDAI 50 ORDINARIO	33,00	38,80	43,50	57,00	79,00
BIDAI 70 ARRUNTA / BIDAI 70 ORDINARIO	39,50	45,50	51,00	63,00	85,00
GAZTE 70 ARRUNTA/ GAZTE 70 ORDINARIO	33,00	38,00	43,50	52,00	60,00

1.2.b. Aldi baterako, mota anitzeko eta bidai mugatuko tituluak, kategoría orokorreko familia ugarietzat (FU 20)

Gune kopurua / Número de zonas	Gune 1 1 Zona (€)	2 Gune 2 Zonas (€)	3 Gune 3 Zonas (€)	4 Gune 4 Zonas (€)	5 Gune 5 Zonas (€)
BIDAI 50 FU 20 / BIDAI 50 FN 20	26,40	31,00	34,80	45,60	63,20
BIDAI 70 FU 20 / BIDAI 70 FN 20	31,60	36,40	40,80	50,40	68,00
GAZTE 70 FU 20/ GAZTE 70 FN 20	26,40	30,40	34,80	41,60	48,00

1.2.c. Aldi baterako, mota anitzeko eta bidai mugatuko tituluak, kategoría bereziko familia ugarietzat (FU 50)

Gune kopurua / Número de zonas	Gune 1 1 Zona (€)	2 Gune 2 Zonas (€)	3 Gune 3 Zonas (€)	4 Gune 4 Zonas (€)	5 Gune 5 Zonas (€)
BIDAI 50 FU 50 / BIDAI 50 FN 50	16,50	19,40	21,75	28,50	39,50
BIDAI 70 FU 50 / BIDAI 70 FN 50	19,75	22,75	25,50	31,50	42,50
GAZTE 70 FU 50/ GAZTE 70 FN 50	16,50	19,00	21,75	26,00	30,00

1.3. Aldi baterako, mota anitzeko eta bidai mugagabeko tituluak**1.3.a. Aldi baterako, mota anitzeko eta bidai mugagabeko titulu arruntak**

Gune kopurua / Número de zonas	Gune 1 1 Zona (€)	2 Gune 2 Zonas (€)	3 Gune 3 Zonas (€)	4 Gune 4 Zonas (€)	5 Gune 5 Zonas (€)
BIDAI ORO / BIDAI ORO	47,50	52,50	57,00	71,00	93,00
GAZTE ORO / GAZTE ORO	40,00	44,00	48,00	61,00	81,00

1.3.b. Aldi baterako, mota anitzeko eta bidai mugagabeko tituluak, kategoría orokorreko familia ugarietzat (FU20)

Gune kopurua / Número de zonas	Gune 1 1 Zona (€)	2 Gune 2 Zonas (€)	3 Gune 3 Zonas (€)	4 Gune 4 Zonas (€)	5 Gune 5 Zonas (€)
BIDAI ORO FN 20 / BIDAI ORO FN 20	38,00	42,00	45,60	56,80	74,40
GAZTE ORO FU 20 / GAZTE ORO FN 20	32,00	35,20	38,40	48,80	64,80

1.3.c. Aldi baterako, mota anitzeko eta bidai mugagabeko tituluak, kategoría bereziko familia ugarietzat (FU50)

Gune kopurua / Número de zonas	Gune 1 1 Zona (€)	2 Gune 2 Zonas (€)	3 Gune 3 Zonas (€)	4 Gune 4 Zonas (€)	5 Gune 5 Zonas (€)
BIDAI ORO FU 50 / BIDAI ORO FN 50	23,75	26,25	28,50	35,50	46,50
GAZTE ORO FU 50 / GAZTE ORO FN 50	20,00	22,00	24,00	30,50	40,50

**2. Diru-zorroko garraio-tituluek****2.1. Creditrans Titulu Arrunta**

Ereму kopurua / Número de zonas	Gune 1 1 Zona (€)	2 Gune 2 Zonas (€)	3 Gune 3 Zonas (€)
CREDITRANS ARRUNTA / CREDITRANS ORDINARIO	0,96	1,13	1,23
CREDITRANS FU 20 / CREDITRANS FN 20	0,77	0,90	0,98
CREDITRANS FU 50 / CREDITRANS FN 50	0,48	0,57	0,62

2.2. Gizatrans Titulu Arrunta

	(€)
GIZATRANS ARRUNTA / GIZATRANS ORDINARIO	0,37
GIZATRANS FU 20 / GIZATRANS FN 20	0,30
GIZATRANS FU 50 / GIZATRANS FN 50	0,19

3. BGP-ko Joanaldiko Titulua. Metroko Zerbitzua

Ereму kopurua / Número de zonas	Gune 1 1 Zona (€)	2 Gune 2 Zonas (€)	3 Gune 3 Zonas (€)
BGPko JOANALDIKO ARRUNTA / OCASIONAL CTB ORDINARIO	1,70	1,90	1,95
BGPko JOANALDIKO FU 20 / OCASIONAL CTB FN 20	1,35	1,50	1,55
BGPko JOANALDIKO FU 50 / OCASIONAL CTB FN 50	0,85	0,95	0,95

- Kudeaketa-komisioa, txarteleko aldi baterako titulua desblokeatzeagatik: 0,50 euro (BEZa barne)*
- Kudeaketa-komisioa, aldi baterako tituluan eremu gehiago sartzeagatik: 0,50 euro (BEZa barne)*
- Kudeaketa-komisioa, aldi baterako tituluko eremuak aldatzeagatik: 0,50 euro (BEZa barne)*
- Kudeaketa-komisioa, garraio titulu baliogabetzeagatik: 0,50 euro (BEZa barne)*
 - Tituluak erabiltzeko eta komisioak aplikatzeko baldintzak badaude jasorik Barik txartela eta Bizkaiko Garraio Partzuergoaren garraio titulu arruntak arautzen dituen ordenantzan.
 - Enpresa publiko edo enpresa-erakunde publikoek, enpresa pribatuek, enpresa mistoek edo, oro har, merkataritzako enpresek, euren estatutuen edo adjudikazio-kontratuen indarrez, ordenantza honetan ezarritako tasak biltzen dituztenean euren izenean emandako ordainagiriaren edo tiketaren bitartez, ulertuko da tarifek berru hartzeko dutela BEZa, hala behar denean.

BEZaren karga-tasak aldatzen badira, tarifen arabera zerga-oinarriei BEZaren karga-tasa indardunak aplikatuta zehaztuko da kuota.

V. SORTZAPENA**5. artikulua**

Zerga-egitatea den zerbitzua ematen hasten denean sortuko dira tasa eta hura ordaindu beharra. Hori dela eta, ulertuko da zerbitzua eskatzen den egunean hasten dela zerbitzua ematen.

**VI. KUDEAKETA, EPEAK ETA ORDAINTZEKO MODUA****6. artikulua**

Zerbitzua ematen den unean bertan likidatu eta ordainduko dira tasak. Hala ere, Bizkaiko Garraio Partzuergoak zilegi izango du eskaera erregistratzen duenean tasa likidatzea eta ordain dadila eskatzea.

Tasak ordaintzeko eskudirua eta kreditu-txartelak erabili ahal izango dira horretarako egokitutako lekuetan. Hori gorabehera, etorkizunean baliteke ordaintzeko beste modu batzuk onartzea.

Ordenantza honetan ezarritako tasak eskatu ahal izango dira bai eragiketa garraio-sistemaren sareko edozein lekutan egiten denean bai sistema horretatik kanpoko sarean (estankoak, kioskoak, saltokiak, internet eta abar) egiten denean, ezertan ukatu gabe etorkizunean eragiketa beste leku batzuetan ere egiteko aukera.

Ordenantza honetan ezarritako tasak ezingo dira ordaindu Barik txarteletako diru-tituluen saldoaren kargura.

VII. AZKEN XEDAPENA. ORDENANTZA HONEN ONESPENA ETA INDARRALDIA

Bizkaiko Garraio Partzuergoko Kontseilu Nagusiaren 2021eko abenduaren 1eko erabakiaren bitartez ordenantza honetan sartu diren aldaketak Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean sartuko dira indarrean.

Eta horren berri ematen da honakoa jakinarazita: administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu daiteke Euskadiko Goi Epaitegiaren administrazioarekiko auzitarako Areatoan, bi hilabeteko epean Arautegia argitaratu biharamunetik hasita, administrazioarekiko auziak arautzen dituen azaroaren 13ko 29/1998 Legearen 10. eta 46.artikuluarekin eta Tokiko Ogasunei buruzko abenduaren 16ko Foru Arauaren 18. 1 artikulua eta Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 legearen 112.3 artikulua ekin bat etorritz.